

## KULTURKRIKITA

» LIBURUA

# Kalifornia bat guztiontzat



Amaia Alvarez Uribe

Eider Rodriguezek oparitu digun azken ipuin bilduma sei narraziok osatzen dute eta seiok gonbidatzen gaituzte idazle honen unibertso partikularrean murgiltzera. Bertan protagonistek hurbil duten pertsona bati begira jarriko gaituzte, senar ohia, bizilaguna edo ama izan daitekeena, eta haiekiko dituen zilborreste edo harien kolore arreak bistaratu, haien buruarekiko harremana ere erakutsiz: “Zure ondoan distira egin zezan apaltzen zinen jendaurrean”.

Emakumeak dira protagonista guztiak eta haien begietatik ikusiko ditugu inguratzen dituzten munduak. Kosmos txikiok gehienetan lau pareta izango dituzte, hortaz, etxe desberdinetan sartuko gara eta bertan ikuspegi argi eta maratzat izango dugu edo giro itxia eta usain minak sumatuko ditugu. Izan ere, zentzumenek, bereziki usaimenak, garrantzi handia izango dute narrazio hauetan emozioekin batera, egoera desberdinetan jasotako sentsazioekin inarrosi egingo direlako behin eta berriz pertsonaiak. “Bien arteko isiltasunen arteko talka entzuten zen hozkailua ixtean”.

Arraroa eta berezia hitzak behin baino gehiagotan agertuko dira, baita haien definizioak ere, eguneroko agertoki hauetako ertz eta tolesak auzitan jarriko baitute errealitatea edo normaltasunaren pertzepzioa. Azkenik, eta aurrekoari lotuta, jende arteko desberdintasunak agerian utziko dituzte elkarrizketek eta narratzailearen iruzkinak, klase ertaineko emakumeen

## Bihotz handiegia

EIDER RODRIGUEZ

Susa, 2017



Eider Rodriguez Martin idazlea  
(Erreterria, 1977).



erradiografia bat eskainiz, haien kezka eta ezinegon batzuen agerpenaz: “Adin ertaineko andre kanonikoaren rola jokatu zenuen”.

Laburbilduz, etxe kantoietako hatsa sentituko dugu orriotan. Carver edo Munroren ipuinetan bezala, etxe arrotzetan sartzen utziko digu Rodriguezek, pertsona arrunten bizitzak ezagutzeko eta haien “munstrokeriak” deskubritzeko. Etxe hauetako kantoietan gorputzak biluztuko dizkigu eta espazioak ñabartu zenbait muga desitxuratuz. Etxeotako kantoietako hatsa sentituko dugu azalean, arnas leuna izango dena batzuetan eta kirats fina beseteetan, bizitzak dituen une deserosoak ekarriko dizkigu bakoitzaren gorputzaz eta bizimoduaz hausnarketa egin dezagun, inguruan duguna ez delako dirudien bezain oso, finko eta argi: “Denak beldurgarriki berdin jarraitzen du”. ■